

Diru-Iturriak:

Aplikazio mota hau sortzeak kapital inbertsio handia beharko luke, eta horretarako, lehenik, mailegu bat eskatu beharko litzateke. Kapital mailegu hau entitate bati eskatuz edo beste enpresa baten laguntza bitartez lor genezake. Bestetik, noski, edukitako zor hau, gure enpresak, hazkundera lortzerakoan edota garatzen doan heinean kitatu beharko litzateke.

Era berean, hasieran produktua sortzeko beharrezkoa den kapitala akzioetan bana genezake, eta gure egitasmoan inbertitu nahiko luketen pertsonak bilatu eta hauen bidez beste diru iturri bat garatuz.

Hortaz gain, beren enpresaren publizitatea gure web orrian txertatu nahi duten enpresa eta banakoak bilatu ditzakegu, publizitatearen bitartez beste diru iturri bat lortzearren.